

15. IKASGAIA.- AUDITORIA ARAU TEKNIKOAK ETA NAZIOARTEKO AUDITORIA ARAUAK (NIA-ES).

Aurkibidea

- Helburuak
- Auditoria arau teknikoen kontzeptua eta izaera juridikoa
- Legezko oinarriak
- Arau teknikoen eraketa

15.1. HELBURUAK

Auditoreen funtsezko obligazioa, kasu guztietan, kontuen auditoriari buruzko arauak eta legeria errespetatzea da. Kontuen auditoriari buruzko Legea, oinarrizko legezko testua da auditoria gaian. Gainera, Lege hori garatzen duen Erregelamendua aipatu behar da. Beste legezko testu batzuk ere oinarrizkoak dira (kontuen auditoriari buruzko arau konkretuak dituztenak), adibidez, hurrengoak: Merkataritzako Kodea; Merkataritzako Erregistroari buruzko Erregelamendua; Kapitaleko Sozietateei buruzko Legea; Baloreen Merkatuari buruzko Legea, etb.

Legezko arau batzuk, bereziki kontuen auditoria erregulatzean, beste arau batzuetara igorpena egiten dute. Azken arau hauen edukia, ez da kontuen auditoria bakarrik, baina auditorea obligatzen dute beren funtzio profesionalaren jardueran. Honela, adibidez, Merkataritzako Kodean, Kontabilitatearen Plan Orokorrean eta bere egokitzapenetan dauden Orokorrean Onartutako Kontabilitate Arau eta Printzipioak, etb.

Auditoreek, legezko eta kontratuzko (auditoreak enpresa ikuskatuarekin ospatutako kontratuaren klausulak) xedapenak betetzeaz gain, auditoria arau teknikoak errespetatu behar dituzte. Auditoreek, Auditoria Arau Tekniko hauek bete behar dituzte, Kontuen auditoriari buruzko Legeak eta bere Erregelamenduak horrela diotelako.

- Zer diren Auditoria Arau Teknikoak eta Nazioarteko Auditoria Arauak (NIA) eta Arau Tekniko mota desberdinak
- Zergatik nahitaez bete beharrekoak diren
- Nork eratu ditzaken Arau Teknikoak eta NIA-K eta zein den eraketarako prozedura

15.2. AUDITORIA ARAU TEKNIKOEN KONTZEPTUA ETA IZAERA JURIDIKOA.

Auditoria arau teknikoek auditoreak bere funtzioen jardueran nahitaez jarraitu beharreko printzipio eta baldintzen multzoa osatzen dute, baita iritzi teknikoa adierazteko burutu beharreko ekintzen oinarria ere.

Bere lanak egitean auditoreak jarraitu beharreko metodologia eta irizpideak dira.

Arau tekniko hauek ez dira, izatez, legezko arauak. Izaera profesionaleko arauak dira.

Auditoria Arau Teknikoak
Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuaren web orrian Auditoria Arau Tekniko guztiak, Nazioarteko Auditoria Arauak barne, ikusi daitezke.

15.3. LEGEZKO OINARRIAK.

Auditoreek, auditoria arau teknikoak bete behar dituzte obligazioz. Arau tekniko hauek ez dira, izatez, legezko arauak. **Izaera profesionaleko arauak** dira, Korporazioek egindakoak edo egokitutakoak eta Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuak bere aldizkarian argitaratutakoak. Auditoreek, auditoria arau teknikoak bete behar dituzte obligazioz. Arau tekniko hauen obligaziozko izaera hori, beste arau batzuen artean, Kontuen auditoriari buruzko Legearen 6. artikuluan dator. Artikulu honek dioenez, auditoria lanak auditoria arau teknikoetan ezarritako baldintzak eta formaltasunak kontuan hartuz egin beharko dira.

Kontuen auditoria ez diren baina, hala ere, auditore batek egin beharreko lanak badira, lan horiei buruzko arau tekniko bereziak aplikatu beharko dira.

. 2006. ko VIII. Direktibak auditoreek beren lanak, IFAC-ek (International Federation of Accountants). egindako Nazioarteko Auditoria Arauak kontuan izanik (NIA) egin behar direla dio. Europar Batasuneko Estatu kideek NIA horiek beren hizkuntzara itzuli eta beren legedi berezira egokitu dituzte. Behin Espainiar legedira itzulita eta egokituta daudela (espainiar legearen kontrako aspektuak eta espainiar kontu auditoriaren Legean erregulatzen ez diren lanei buruzko aipamenak kendu, NIA horiek Espainian ongi aplika daitezen laguntzeko ohar argigarriak sartu), *NIA horiek Auditoria Arau Tekniko izaera hartzen dute eta NIA-ES bezala identifikatzen dira*. IFAC-ek NIA bat aldatzen duenean, aldaketa hau ere itzuli eta legedi espainiarrera adaptatu beharko da.

Auditoria Arau Tekniko bereziak
14. ikasgaian, auditoreek, urteko kontuen auditoriak egiteaz gain, kontuen auditoria ez diren beste lan batzuk ere egiten dituztela aztertu dugu. Lan hauek egiteko, auditoreek kontuan hartu beharreko, Arau tekniko bereziak daude. Arau Tekniko horiek Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuaren web orrian ikusi daitezke

Auditoria Arau Teknikoek, Nazioarteko Auditoriako Arauek erregulatzen ez dituzten gaiak erregulatzen dituzte. Orain arte indarrean egon diren Auditoria Arau Teknikoak indarrrik gabe gelditu eta beren lekua **Nazioarteko Arau Teknikoek (NIA-ES)** hartu dute. Hala ere, badira NIA horiek erregulatzen ez dituzten aspektuak erregulatzen dituzten Arau Teknikoak edo hauen zatiak, indarrean jarraitzen dutenak, beti ere, azken hauek, NIA-ren arauekin kontrajarriak ez badira behintzat. Honen

adibideak hurrengoak dira: gainbegiratzea egiten duten erakunde publikoek galdatutako urteko kontuen auditoriari gehigarri diren txostenei buruzko Arau Teknikoa (Ad. Burtsan onartuta dituzten baloreak jaulkitzen dituzten entitateen aldizkako informazio publikoa, aseguru entitateen urteko kontuen gaineko auditoriari buruzko txosten gehigarria, kreditu atala duten kooperatibena, kirol sozietate anonimoak, kreditu entitateak, inbertsio zerbitzuen enpresak eta bere taldeak); Auditoria ez diren baina auditoriari buruzko legeriak auditore batek egitea galdatzen duen lan bereziei buruzko Arau Teknikoak, Korporazioek gidak onartzen dituzten arte eta, ondoren, KKII.ak onartu (kredituen konpentsazio bidez egindako kapital gehikuntzari buruzko txosten bereziaren eraketari buruzko Arau Teknikoa (KSL301art.a); 308. Eta 504tik 506ra artikuluetako suposamenduan harpidetza lehentasun eskubidea kentzeko)

Nazioarteko Auditoria Arauak, behin itzulita eta espainiar legedira egokituta daudela, Korporazioek KKII.an aurkezten dituzte, publikoari ikusgai jar daitezen bi hilabeteko epean. Ondoren, KKII-k, bere Aldizkarian argitaratzen dituenean, indarrean sartuko dira.

15.4. ARAU TEKNIKOEN ERAKETA.

Auditoreen Korporazioek egindako eraketa

Auditoria arau teknikoak Auditoreen Korporazioek eratu, egokitu eta berrikusiko dituzte. Arau tekniko hauek, Europako Erkidegoko herrialdeetan orokorrean onartutako ohiko ekintzekin eta printzipio orokorrekin bat etorri behar dira. Espainiako arau teknikoak Europako Erkidegoko estatuen arau teknikoekin bateratuta egotea lortu nahi da.

Korporazioek egindako arau teknikoek eraketa proiektuak, egokitzapenak edo berrikuspenak, prozedura bat jarraitu behar du. Korporazioak arau teknikoek proiektua Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuari bidali beharko dio.

Institutuak, arau teknikoek eraketa proiektua, egokitzapena edo berrikuspenera, jendaurrean ikusgai jarri beharko du, "Estatuko Aldizkari Ofizialean" iragarki bat jarriko duelarik proiektua bidalia izan zaiola jakinaraziz.

Arau teknikoek proiektu osoa Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuaren Aldizkarian argitaratuko da.

Informazioa jendaurrean ikusgai jartzearen prozeduraren iraupena bi hilabetekoa izango da eta epe horretan espedienteak, bere azterketan interesatuta egongo liratekeen esku egongo da bai Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuan, bai Korporazioetan, dagozkion alegazioak aurkeztu ahal izango direlarik.

Informazioa jendaurrean ikusgai jartzearen prozedura bukatzen denetik gehieneko hiru hilabeteko epean, Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuak,

Institutuaren Aldizkarian dagokion argitalpena egingo du; argitalpena egin ezean, eratzea, egokitzea edo berrikuspena egin duen Korporazioari zergatia jakinaraziko dio, komenigarriak diren aldaketak egongo balira, proposatuz.

Korporazioak proposatu zaizkion aldaketak onartuz gero, egin beharreko aldaketak eginaz, Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuak dagokion argitalpena burutuko du.

Arau teknikoek ez dute baliorik izango Institutuaren Aldizkarian argitaratu arte.

Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuaren gainbegiraketa

Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuak, beharrezkoa deritzonean, Korporazioei kontuen auditoria arau teknikoak eratzea, egokitzea eta berrikustea eska diezaieke.

Eskaera egin denetik sei hilabete igaro ondoren Korporazioek oraindik ezer egin ez balute, Korporazioek, Europar Batasunean onartuak izan diren Nazioarteko Auditoria Arauen aplikazioa onartzen dutela uste du Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuak.